


Mohamed Mahmoud. Assad Hagako Auzitegian amesten duen siriarra



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Mendebaldeko estatuak sekula baino gehiago Siriara so diren honetan, Assaden erregimenak egin “genozidioaz” ohartarazten dabil Mohamed Mahmoud. Estatu kolpe baten bidez iritsi zen boterera Hafez el-Assad, 1970ean, eta Bachar semeak hartu zion segida 2000n. Masakrez, errepresioz eta askatasun ukapenez josiriko urte luzeak dira. “Assad da siriarren hiltzaile nagusia, ez Daesh”.

“Egunero bizi dugu Gernikako sarraskia Sirian”



Jenofa Berhokoirigoin

Informazio biltzen ari zara, Siriako zerbitzu sekretuek eskatu bezala. Assad erregimenaren aurkako informazioak dira ordea.

2011z geroztik, Siriako armadak eta erregimenarentzat dabiltzan mertzenarioek egin krimenak dokumentatzen nabiltzen. Hagako Auzitegira jotzea dugu xede.

Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak Hagako Auzitegira joz gero, inkesta abiatuko litzateke.

Beto eskubideari esker, delibero bat bloke dezakete bost kide iraunkorrek. Estatu horien interesak mehatxaturik baldin badira, betoa ezartzen dute. Baina goiz ala berant auzitegian egon behar du gaiak. Milioi erdi jende hil dituen erregimena dugu; milioi eta erdi gerrako elbarritu ditugu, lau edo bost milioi errefuxiatu, baita ere hamar milioi Siria barruan higiturik. Herri oso baten suntsipena dugu, Gernikako desmasia egunero dugu Sirian. Orain islamistak ere ditugu, itsuski giza eskubideak urratzen dabiltzanak. Baina, biak balantzan ezarriz gero, erregimenak ditu krimen gehiago. Ez dezagun isilean atxiki Assad duela Daesh sustatu.

Zehaztu dezakezu azken esaldi hori?

Badira hamabost bat urte Ekialde Hurbileko mugimendu islamisten manipulazioak dabiltza Siriako erregimena. 2003tik 2007-2008 arte, Siriatik pasatzen ziren Irakera sartu nahi zuten mujahidak. Siriak onartzen zituen, formatzen zituen, armatzen zituen. AEBak jakinean ziren, horregatik zen behin baino gehiagotan Siriako erregimenarekin bildu eta horregatik zien Siriako bi kanpamenturi eraso 2007an. Egunetik biharamunera hori guztia gelditu zen, bien arteko adostasunaren ondorioz. Islamistak muga atxilotu eta Sednaya deitu kartzelan sartzen zituen Siriak.

2011n Assad askatu zituenak.

Bai, iraultza hasi eta hiru hilabetera. Horiek dira gaur egun talde islamisten buru. Erregimenak bazekien oso ondo zer egingen ari zen. Oinarritzko printzipioetarik hustu nahi zuen iraultza. Manipulazio politikoari doakionez, ez da munduan Siriakoa baino abilagoa den erregimenik.

2011n hasi herri mugimendua arras desjabeturik dago lau urte geroago.

Duintasun ezan eta beldurrean bizitzea

Kanadara iheslari

“Unibertsitateko irakasle nintzela zerbitzu sekretuekin kolaboratzea eskatu zidaten. Errefuxiatu eta Siriatik Kanadara abiatu nintzen. 1992an ginen, iraultzaren itzalik ez zen ageri, alta, guztiaz jakinean izan nahi zuten”.



Mahmoud (ezkerrean) Alepo hirian, 2014an, bonbardaketa baten ostean.

SAMI MESHAAH

onartzen ez zutenek osatu herri mugimendua genuen hasieran. Plurala zen, eta ez zen islamistarik artean. Mugimendu baketsuari errepresioz erantzun zion gobernuak. Armadak polizia sekretuaren esku uzten zituen atxilotuak, torturatu eta egun batzuetara hilotz itzultzen zizkiguten. Tortura eta bortxaketa eszenak filmatu eta hedatu zituen erregimenak, bortizkeriarantz bultzatzeko herritarrak. Mugimenduaren armatzea txalotu zuen Assadek, arlo horretan ereduzkoa delako. Assadek aliatuei dei egin zien, hots, Libanoko Hezbollahi eta irandarrei. Beste aldetik, iraultzaren militarizazioa lagundu zuten Turkiak, Saudi Arabiak eta Qatarrek. Herri oso batek diktadura bat garaitzen ez dute ikusi nahi. Guztia egin zuten iraultza usteltzeko. Bere buztana atzeman nahian itzulika dabilen txakurraren gisa ikusi nahi dute iraultza.

Errusia eta AEBak ere hor dira.

Gatazka honetako bi protagonistak *manu militari* laguntzen dabilta. Batetik, erregimena bera eta bestetik, amerikarrek oposizio moderatua deitzen dutena. Baina

frogak ditugu erraiteko AEBek armak banatu dituztela Daeshi ere. Guztiak dabilta haien interesen alde, zuzenki ala zeharka.

Anartean, Daesh indartsu dabil.

Daeshen aitzinamenduak ikusten direnean, ezin sinetsia da erraitea inork ez dakiela ezer talde horretaz. Nori saltzen dio bere eremuetako petrolio? Petrolio hori Europara iristeko bidea zeinek errazten die? Urte batez 20.000 borrokalari berri sartu dira Daeshen lerroetan. Zeinek hartzen ditu Daesheko borrokalariak? Zeinek finantzatzen ditu? Turkiak, Jordaniak eta Irakek! Pasatzen uzten dituzte, garaian Siriak Irakentzat egiten zuen gisara. Daeshak inoiz ez dio erregimenari zuzenki eraso; Siriako Armada Libreak erdietsi lurrak ditu menderatzen. Mehatxu gisa erabiltzen du Daesh erregimenak, "ni ala buru moztaille horiek" logikan.

Parisko atentatuez geroztik, Daeshen aurkako gerla deklaraturik da.

Assaden erregimena azkartzen du Daeshen aurkako tiro bakoitzak. Assad da siriarren hiltzaile nagusia, ez Daesh.

Burdin elea du Manuel Valls Frantziako lehen ministroak, dioenean islamisten aurkako borrokan dabiltzala Saudi Arabia eta Qatar.

Denok dakigu Saudi Arabia, Iran, Turkia eta Israel talde terrorista horien laguntzen dabiltzala, zuzenki ala zeharka. Askatasunaren eta justiziaren printzipioak urratzen dabiltzala ere badakigu. Hala eta guztiz ere, Mendebaldeko herriek ez dituzte harremanak moztuko haiekin. Zergatik? Billete berdea delako nagusi.

Nazioartearen esku-sartzearen kontra zara.

Erabat. Errusiarren, amerikarren, turkiarren eta abarren interesak ez dira siriarrenak. Bost axola dute siriarren biziaz.

22 milioi biztanleetarik bost milioi joanik, 2011z geroz. Herri bat husten ari da.

Oposizioan egon daitezkeenak herritik joatea erregimenaren interesetan da. Gazte-ria lekuak husten ikusteak min egiten du, baina egoera ulertu behar da: heriotzari ihesi doaz. Alemanian egindako inkesta baten arabera, emigrante horien %75 Siriara bueltatuko da, bakea itzuliz gero. Bizia ederra da berez Sirian, herri ederra da. ■